

GIPUZKOA ETA EUROPAR BATASUNA



30. Informazio Buletina
2009ko Urtarrila





NABARMENDU BEHARREKOA

2008ko Gipuzkoako balantze ekonomikoa

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuaren 2008ko balantze ekonomikoak krisi ekonomiko orokorrak Gipuzkoako ekonomian duen eragina islatzen du.

Eragin hori urtearen bigarren zatian agertu da eta zerga-bilketan nabarmendu da; urte osoan % 5,5 jaitsi da. BEZaren zerga-bilketaren murriztapena nabarmendu behar da, % 13,4an zenbatu da.

Ildo horretatik, aurrez ikusitako egoera ekonomikoari aurre egiteko eta krisiak Gipuzkoan izan dezakeen eragina geldiarazteko xedearekin, hainbat ekintza proposatzen dira.

Informazio gehiago:

<http://www.gipuzkoa.net/noticias/archivos/coyuntura008.pdf>

Europar Batasuneko Txekiar Presidentetza: Lehentasunak

Txekiar Errepublikak bere gain hartu zuen Europar Batasunaren presidentetza 2009ko lehenengo sei hilabeteetan. Urtarrilaren 6an lan-programa eta horren lehentasunak aurkeztu ziren. "Mugarik gabeko Europa" goiburupean hiru lehentasun finkatzen dira: ekonomia, energia, eta Europa eta mundua.

Ekonomiaren alorrean, ekintza azkarreko neurriak hartuz xede hauek nabarmentzen dira: krisia geldiaraztea; eta egonkortasuna, merkatu finantzarioen funtzionamendu ona eta agente ekonomikoen konfiantza berreskuratzea.

Energiaren alorrean, Kopenhagen iragarritako bileran adostasun orokorra lortu nahi da klima-aldaketari mundu mailan aurre egiteko. Europa munduan lehentasunari dagokionez, Europak munduan duen rola indartu nahi da garrantzi ekonomikoarekin, ematen dituen baliabideekin eta balio-sistemeekin bat eginik.

Informazio gehiago (ingelesez):

<http://www.eu2009.cz/en/czech-presidency/programme-and-priorities/programme-and-priorities-479/>



Berrikuntza Europan 2008an

European Innovation Scoreboard 2008 eta Zientzia, Teknologia eta Lehiakortasunaren adierazle garrantzitsuei buruzko txostenen argitalpenek berrikuntzak Europan izandako garapenaren ikuspegi orokorra eskaintzen dute.

Europako ikertzaileen kopuruaren gorakada erakusten du txostenak, baita EBk atzerriko ikertzaileentzat duen erakargarritasuna eta Estatu Batuek I+Gn egindako inbertsio pribatuak ere. Hala eta guztiz ere, EB-27k I+G intentsitatean izandako geldialdiak (I+Gra zuzendutako BPGd portzentaia), % 1,84n alegia, EBk jakintzan oinarritutako gizarte bilakatzeko zuen nahia oztopatzen du.

Europako Batzardeak aipatutako dokumentu horien bitartez helarazitako mezu garrantzitsuenak hauek dira: (1) mundu globalizatuan ikerketa lehiakortasunerako funtsezko aktiboa da, (2) EBko I+Garen intentsitate orokorra gelditzen ari da, baina datu horrek estatu mailako desberdintasunak ezkututzen ditu, (3) sektore pribatuaren inbertsio intentsitatea oraindik ere baxuegia da, (4) ikertzaile kopurua areagotzen ari da eta lehiakideen ezagutzaren esplotazio gaitasuna, aldiz, murrizten, eta (5) atzerriko inbertsioentzako eta zientziaren eta teknologiaren alorreko profesionalentzako erakargarritasuna areagotzen.

Informazio gehiago (ingelesez):

http://ec.europa.eu/research/era/publication_en.cfm

<http://www.proinno-europe.eu/metrics>





KOHESIO-POLITIKA

Hiri Atlasa

Europako Batzordea Hiri Atlasa egiten ari da, 2011. urtean hiri guztiek hirigintzako informazio fidagarria eta alderagarria izan dezaten. 2009an, kide diren estatu guztietako 185 hirik satellite bidez hartutako milaka argazkiz osatutako atlas hori izango dute eskura.

Satellite bidezko milaka argazkiren bidez hirigintzako datuak biltzen dituen ekimen horrek, besteak beste, klima-aldaketaren mehatxuak eta arriskuak aldeztetik ebaluatzen lagunduko du; baita garraio publikoari dagokionez azpiegituren beharra identifikatzen ere.

Informazio gehiago (ingelesez):

http://ec.europa.eu/gmes/index_en.htm

Kohesio funtsa: urteko txostena

Kohesio Funtsari (2007) buruzko urteko txostenak 2000-2006 aldiari dagokion 2007. urteko egikaritze finantzarioa aztertzen du, urte horretan itxitako proiektuez gain.

2007. urtean Batasuneko hamabost estatuk eskura zezaketzen kohesio funtsaren laguntza (kide berri diren hamabi estatuak eta Grezia, Espainia eta Portugal). Bulgariak eta Errumaniak 2007ko urtarrilaren 1ean atxiki zirenetik aurrera jaso ahal izan dute Kohesio Funtsaren laguntza.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2008:0752:FIN:ES:PDF>

Eskualde mailako politika eta batasunaren hedapena

DG Regioren Panorama aldizkariko azken aleak atxiki aurreko laguntza baliabidea aztertzen du. Baliabide horren xedea hautagai den edo hautagai izan daitekeen herrialdeetako politika, arau eta lege nazionalak egokitzen laguntzea da, etorkizunean atxikitzen direnerako prestatuta egoteko.

Zehazkiago, mugaz gaindiko lankidetzarako eta eskualde garapenerako baliabide horrek dituen elementuak aztertzen ditu.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/panorama/pdf/mag27/mag27_es.pdf



KOMUNITATEKO POLITIKAK

Frantziaren presidentetzaren balantzea

Frantziaren sei hilabeteko presidentetzak egindako balantzeak adierazi du nazioarteko hainbat krisik markatu dutela epe hori eta Europar Batasunak oinarritzko arazoei irtenbide kolektiboak emateko duen gaitasuna proban jarri dela.

Era berean, hasieratik finkatutako lehentasunei jarraipena ematen dela adierazi da: klima-aldaketaren aurkako borroka ("Energia-klima" paketearen onarpenarekin), migrazio-politika (Asiloari eta Immigrazioari buruzko Europako Itunarekin), nekazaritzako politika bateratua (NPBren "azterketaren" onarpenarekin eta horren etorkizunari buruzko eztabaidarekin) eta segurtasunerako eta defentsarako Europako politika (horri bultzada ematen zaio programa zehatz eta operatiboaren bidez).

Informazio gehiago (frantsesez):

http://www.ue2008.fr/webdav/site/PFUE/shared/import/1231_Bilan_PFUE/Pr%C3%A9sidence_francaise_bilan_et_perspectives.pdf

2009 sormenaren eta berrikuntzaren Europako urtea

Urte hasieran, 2009 Sormenaren eta Berrikuntzaren Europako Urteari hasiera ofiziala eman zitzaion "Imajinatu.Sortu.Berritu" esloganarekin. Ekimenaren xedea sormenak eta berrikuntzak ekonomiaren oparotasunean, eta gizartearen eta norbanakoaren ongizatean duten eragina nabarmentzea da.

Sormenaren Europako Urteak ezagutzera eman nahi du sormenak eta berrikuntzak garapen pertsonal, sozial eta ekonomikorako duen garrantzia.

Informazio gehiago:

<http://create2009.europa.eu/>

Europar Batasunaren itsas garraioeko politika 2018 arte

Batzordearen Komunikazioak Europako itsas-garraio sistemak 2018 arte dituen helburu estrategiko nagusiak aurkezten ditu eta EBren jardunak sektorearen lehiakortasuna zer alderditan indartuko duen definitzen du; era berean, ingurumen prestazioak ere hobetzen ditu.

Ildo horretatik, itsas-garraioa Batasunaren lehiakortasunerako abantaila gisa kalifikatzen da honako elementuetatik abiatuta: ingurumen jokaeraren hobekuntza, itsas-garraioaren segurtasuna, babesa eta zaintza, eta segurtasun energetikoaren eragile gisa.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2009:0008:FIN:ES:PDF>



E-LIBURUTEGIA

Eskualdeen arteko lan mugikortasuna europar batasunean

Europako Batzordearen DG Regioko Regional Focus bildumaren ikerketa labor honek Europar Batasuneko eskualdeen arteko mugikortasuna aztertzen du. Horrez gain, Estatu Batuetako barne-mugikortasunaren azterketa konparatiboa egiten du.

Azterketa horretan aurreko urtean EBko beste herrialdeetatik lan egiteko adina duten biztanle gehien erakarri zituzten komunitateetako eskualdeak identifikatzen dira. Era berean, biztanleria Batasunaren barruan mugiaraztera bultzatzen duten hainbat faktore nagusi berrikusten dira bertan.

Informazio gehiago (ingelesez):

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/focus/2008_02_labour.pdf

Krisi ekonomikoa eta enpleguaren berregituraketa

Europako Batzordearen txostenak krisi ekonomikoak enpleguaren gain izango dituen eragin negatiboari aurrea hartzeko estrategia, politika eta jardueren ikuspegi globala aurkezten du, bai alderdi kualitatiboari dagokionez (eskatutako gaitasunak eta prestakuntza), bai alderdi kuantitatiboari dagokionez (lanpostu kopurua).

Beharrezko egokitzapenez gain, aukera posibleak aurkezten ditu eta egokitzapenek izan ditzaketen eragin negatiboetan zentratzen du azterketa.

Informazio gehiago (ingelesez):

<http://ec.europa.eu/social/main.jsp?langId=en&catId=103&newsId=434&furtherNews=yes>

Europar batasuneko egoera soziala

Eurostaten 2007ko urteko txostenean Europar Batasuneko aukera berdintasunarekin lotutako hainbat elementuren ikuspegi zabal eta globala eskaintzen da.

Desberdintasun ekonomikoez gain, bizi-maila, pobrezia-arriskuak eta pobrezia bera lantzen ditu. Desberdintasun sozialak, desberdintasun horien belaunaldiz belaunaldiko transmisioa eta aukera berdintasuna ere lantzen ditu, immigrazioaren eragina atal horretan sartuz.

Informazio gehiago (ingelesez):

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KE-AG-08-001/EN/KE-AG-08-001-EN.PDF



ADIERAZLEAK

Europako aurreikuspen ekonomikoak 2009-2010

2009-2010erako Europako Batzordearen urtarrileko aurreikuspen ertainek aurrez ikusten dute Europar Batasuneko BPGd-a % 1,8 murriztuko dela eta 2010ean apur bat suspertuko dela, % 0,5 igoz.

Batzordeak adierazi du garapen hori krisi finantzario sakonak benetako ekonomian dituen eraginaren eta horren ondoriozko munduko jarduera ekonomikoaren beherakadaren ondorioa dela. Beherakada hori nazioarteko merkataritzaren eta eskulanaren produkzioaren uzte handian eta zenbait herrialdetan higiezinaren merkatuaren egokitzapenean agertzen da. Hala eta guztiz ere, kontsumo publikoak eta inbertsio publikoak ondorio negatibo horiek arinduko dituztela espero dute.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/economy_finance/thematic_articles/article13727_en.htm#documents

I+G gastua Gipuzkoan

Eustaten 2007ko ikerketa eta garapen teknologikoko jardueren (I+G) estatistikaren arabera, Gipuzkoan I+Gn izandako gastua 447 milioi eurokoa izan zen, aurreko urtekoarekin alderatuta, % 23 gehiago.

Kopuru horrek BPGd-aren % 2,05 adierazten du; Europar Batasuneko batez bestekoa (% 1,83) gainditzen du. Jarduera horietan parte hartu duen pertsona kopurua 5.879koa da.

Informazio gehiago:

http://www.eustat.es/ele/ele0004900/not0004986_e.html

Ostatu turistikoaren eskaintza europar batasunean

Eurostaten dokumentuak 2007. urtean Batasunean izandako ostatu turistikoaren eskaintzaren garapenari buruzko datu nagusiak adierazten ditu. Batasuneko ostatu kopurua, osotasunean hartuta, 27,4 milioikoa da, hau da, mila biztanleko 55 ostatu.

Gehien betetzen diren bi hilabeteetan (uztaila eta abuztua) ostatu-gauen % 30 kontzentratzen da eta gutxien betetzen diren bi hilabeteetan (urtarrila eta abendua) ostatu-gauen % 10.

Informazio gehiago (ingelesez):

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-QA-08-050/EN/KS-QA-08-050-EN.PDF